



I. ATALA
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA
Bizkaiko Foru Aldundia

Ekonomia Sustatzeko Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 53/2021 FORU DEKRETUA, apirilaren 27koa, zeinaren bidez zuzentzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 13ko 34/2021 Foru Dekretuaren akatsak. Foru Dekretu horren bidez, Berrikuntzari, Nazioartekotzeari eta Inbertsioari laguntza integrala emateko 3i planaren dirulaguntzen programaren oinarriak eta deialdia onartu ziren.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Gobernu Kontseiluan apirilaren 13an bilduta, 34/2021 Foru Dekretua onartzeko erabakia hartu zuen. Foru Dekretu horren bidez, Berrikuntzari, Nazioartekotzeari eta Inbertsioari osoko laguntza emateko 3i planaren dirulaguntzen programaren oinarriak eta deialdia onartu ziren.

Onuradun izateko baldintzetako batean euskarazko testuan nahigabeko akats bat ikusi ondoren, zuzendu egin behar da 4. oinarria. Honela gaztelaniazko testuaren baliokidea egingo da.

Edonola ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari dagokio aztertzea bidali den testua onartzea, 3/1987 Foru Arauaren 17. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Horrenbestez, Ekonomia Sustatzeko Saileko foru-diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak 2021eko apirilaren 27ko bileran aztertutik, honako hau,

XEDATZEN DUT:

Artikulu Bakarra. — Oinarri arautzaileak eta deialdia onestea

Berrikuntzari, Nazioartekotzeari eta Inbertsioari Laguntza Integrala emateko 3i Plana dirulaguntza programa arautzen duten oinarriak eta deialdia onesten dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 13ko 34/2021 Foru Dekretuaren 4. oinarriko (Erakunde onuradunak) 1.e atalaren euskarazko bertsioa zuzendu da.

— *Honako hau dioen lekuan:*

- e) 5 eta 100 pertsona arteko langile edukitzea, lansaio osokoak urteko kopuru baliokideetan. Honetarako erakunde eskatzaileari soilik dagozkion datuak hartuko dira. Langiletzat jotzeko 3.b oinarrian adierazitakoa hartuko da kontuan.

— *Hau esan behar du:*

- e) 10 langile edo gehiago izatea, urteko lanaldi osoko baliokideetan. Honetarako erakunde eskatzaileari soilik dagozkion datuak hartuko dira. Langiletzat jotzeko 3.b oinarrian adierazitakoa hartuko da kontuan.

AZKEN XEDAPENAK

Amaierako Xedapena Bakarra. — Indarrean jartzea

Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2021eko apirilaren 27an.

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

Ekonomia Sustatzeko foru diputatua,
AINARA BASURKO URKIRI